

Dantza

Break On Stage: kalearen hamaika aurpegi agertokian

Kale kultura oholtzara eroatea dauka helburu hamar urte bete berriak dituen Break on Stage jaialdiak. Pasa den apirilaren 9an, Bilboko La Casilla kiroldegia hartu du hiru orduko ikuskizuna. Mundu osoko laurogei artistak ekarri dituzte gurera breakdancea oinarri duten hamaika adierazpen artistiko.

ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

ELORRIO IZAN ZEN, orain dela hamar urte, Break On Stage jaialdiaren lehenengo eszena-tokia. Herri horretako Arriola Kultur Elkar-teak sortu zuen kale kultura ikur duen ikuski-zuna, breakdancearen inguruan jaiotako espresioak aretoan batzeko helburuarekin. Kultur errealitate hurbilenak islatuz hasi zen Break On Stage, baina laster, zirkulu kon-tzentrikoei segituz, Europako zein mundu osoko artistak hartu zituen. Gero eta arrakas-tatsuagoa izanik, txiki geratu zen Elorrioko aretoa: jaialdia Bilboko Euskaldu-na jauregiaren lehenbizi, eta gero La Casilla kiroldegira pasako da. Egun, Europako jaialdi inportan-teenetakoa da eta penintsulan ez du parekorik.

“Portugalen eta Espainian badi-ra breakdance jaialdi zenbait, baina irizpide ezberdinez eginak dira. Gurean kale kultura taularatzea da garrantzi-tsuena”, azaldu digu antolatzaileetako batek, Ander Garaizabalek. “Kalean jaiotako kultu-ra, breakdancea, aretora eramateak, argien eta soinuaren erabilpena dakar esaterako, kultur espresio guztien ezaugarri esanguratsuenak nabarmenduz. Emaizak beti izan dira oso ikusgarriak, erakargarriak. Badiotsut, erronka handia da azken 30 urteotan hirietako kaleetan garatutako artea aretoan sartzea”. Ikuski-zunak lau atal izan ditu: Munduko azken breakdance lehiaketako irabazleen erakustaldi-a, aretoko breakdance lehiaketa, Foreign Beggars hip hop taldeak eskainitako kontzertua eta kale kulturen erakustaldia. Frantziaren egindako 2010eko Munduko Breakdance Lehiaketan Jinjo Crew (Hego Korea) atera

zen garaile. Hogei herrialdeetako taldeek hartu zuten parte. “Jinjo Crew mundu mailako talderik berritzaileena da. Mugimendu akrobatiko bikainak eta sinkronizazio maila altua erakusten dituzte koreografiatan”, dio Garaizabalek. Bilboko jaialdian, beren azken lana estreinatu dute.

Ia arnasarik hartu gabe, aretoko breakdance lehiaketak eutsi dio lekukoari: hiru orduko ikuskizuna izanik, erritmo bizia da Break On Stageren nahitaezko ezaugarrietako bat; elkar-
rren segidan, sei minutuko age-
rraldietan, parte hartu dute edizio
honetarako antolatzaileek aukera-
tutako bost taldeek. Erakustaldi
bakoitzean lauzpabost minutuko
tartea izan dute beren emanaldie-
tarako. Jinjo Crew taldearekin
batera, De Klan (Italia), La Smala
(Frantzia), Rugged Solutions
(Herbehereak) –hau da, Frantziako eta Her-
behereetako txapeldun handiak– eta Bilboko
Crazy Hospital aritu dira. Azken hauek ez dira
baina euskal ordezkari bakarrak izan, beste
euskal talde bi ere izan ditugu: batetik, Iruñe-
ko bost dantzarik osatzen duten Breathless
street dance taldea, Sylvia Palacios zuzendari;
bestetik, Marijose Bayon eta Eva Vallejo dan-
tzari eta koreografo bilbotarrek osatutako
Sevemji. Dantzan eta antzerkian eskarmentu
handiko bikotea dugu hau. “Elorrioren, 2009an,
hasi ginen Arriola Kultur Aretoa AKA Dantz,
jaialdia egiten. Urtarrilean, hogeitasei taldek hartu
zuten parte hiru estilotan (breakdancea,
Funky-jazza eta street-dancea). Gure ustez
onenak izan zirenek Bilboko Break On Sta-
gen parte hartzeko gonbitea jaso zuten. Crazy

**Europako breakdance jaialdi
garrantzitsuenetakoa bihurtu
da Break On Stage**

Horse lehiaketan izan dugu. Beste biak, ordea, erakustaldian egon dira”, dio Ander Garaizabalek.

Dantza... eta gehiago

“Kale Kulturen erakustaldian breakdancea oinarri duten beste kultur adierazpenak ere baditugu ikusgai. Ez dakit hamar urte hauetan zenbat gauza ezberdin izan ditugun; guztiak bitxi-bitxiak izan dira. Bizikletaz akrobaziak egin dituztenak, patinetez jauziak egin dituztenak, hainbat tresna erabiliz erritmoak lantzen dituztenak, irudiak, graffitiak, musika eta dantza nahasten dituztenak... Gero eta zailagoa egiten zaigu ezer berririk aurkitzea eta ekartzea. Aurtengo honetan, dantzari eta musikari eman diegu lehentasuna”. Breathless taldea irabazle atera zen AKA Dantzen lehenengo edizioan baita aurtengoan ere, mugimendu errobotikoetan oinarritutako street dance estiloan. Ikuskizunak umorea, erritmo afrikarrak eta poppinga batzen zituen. Ikusleriaren ustetan, kemenez beteriko lana. Sevemji taldeak, berriz, hip-hop, housea eta poppinga baliatu zituen bere agerraldietan. Alemaniako 4 x Sampler Beatbox Crewk ere oso emanaldi bitxiak egiten ditu: ahoarekin instrumentuak eta makina bat efektu sortzen dituzte. Beatboxaren arduraduna, Mando, birritan izan da munduko txapeldun. Rae & Flockey (Alemania) taldea maisua dugu locking estiloan: artikulazioak blokeatzen dituzte, une labur batez, ondoren dantzan azkar jarraitzeko.

Musikaren arloan berriz, platerei harrazkazka 30 urte daramatzan DJ Renegade (Ingalaterra) nabarmendu behar da. Iaz, Vio-

Hego Koreako Jinjo Crew munduko breakdance talderik onenetarikoa da; beraiek izan dira Break On Stage jaialdiko hamargarren edizioko izar nagusiak.

ladores del Verso izan ziren kontzertua emateko arduradunak eta hamargarren edizio honetan, Londrestik abiatuta Europako hip-hoparen erreferente bihurtu den Foreign Beggars egon da. Elorrioko VJ Logela Multi-mediak osatu du jaialdiko euskal presentzia. Bi artista grafikok eta bi musikarik sortutako taldeak Break On Stageren publizitate kanpaina eta eszenografia egin dituzte.

Jaialdiak erakundeen zein hainbat enpresa pribaturen diru laguntza izaten du: “Inportantea da jasotzen dugun sostengua, besteak beste, mundu mailako izarrek ikusteko sarrera hamar eurokoa izatea errazten duelako. Nahi dugu gazteak joatea eta, oro har, kultura mota guztiek hedapen zabala izan dezatela. Laguntzei esker, posiblea da hori egitea”, adierazi du Ander Garaizabalek. Aurtengo jendez betetako La Casilla kiroldegia da gauzak ondo egiten ari diren erakusgarri handiena. ■





**Urbano
jatetxea**

Abuztuaren 31, 17 (Alde Zaharra)
Donostia

☎ 943 420 434

www.restauranteurbano.com

